

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foruzaingoak Malerrekan kanpaina bati ekin dio lapurretak eta ebasketak prebenitzeko

Eskualdeko bizilagunekin komunikazio-bideak sortu nahi du, 'auzolan' eran, beren segurtasunean parte har dezaten

Miércoles, 11 de abril de 2012

Foruzaingoaren Elizondoko komisariak kanpaina bati ekin dio Malerrekako eskualdeko udalerrietan ondarearen aurkako delituak prebenitzeko, azken boladan izandako lapurreta-saiakera eta lapurretengatik bizilagunek agertu duten egonezina dela eta.

"Malerrekako segurtasuna" izeneko kanpaina honekin, Foruzaingoak [segurtasun-gomendioak zabalduko ditu bizilagunen artean](#) lapurreta eta ebasketak prebenitzeko, eta komunikazio-bideak sortuko ditu, 'auzolan' eran, beren segurtasunean parte har dezaten.

Komunikazio-bide horiek ere zonaldeko segurtasun objektiboa eta subjektiboa hobetzen lagunduko dute, eta Foruzaingoari prebentzioko patruilatzea hobetzen. Gainera, haien bidez, Foruzaingoak herritarrei segurtasun-mezuak helaraziko dizkie eta herritarrek foruzainei izan daitezkeen delitu-gertaeren inguruan ohartaraziko diete.

Kanpaina Elizondoko komisariako inspektore buruak Malerrekako Mankomunitateko alkateei aurkeztu die berriki, Donezteben. Mankomunitate horretan 13 udalerritako 5.509 herritar daude (Beintza-Labaien, Bertizarana, Donamaria, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Oitz, Saldias, Doneztebe, Sunbilla, Urrotz, Zubieta).



Foruzaingoaren ibilgailu bat zonaldeko etxebizitza baten aurrean.